14/26

irizpena

Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko

Legearen aurreproiektuari buruzkoa

Bilbo, 2026ko azaroaren 12a

CES EGAB
Consejo Económico y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Irizpena 14/26

Argitalpenak / Maketazioa: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao Tlfnoa: 944792150
cesegab@cesegab.com - www.cesegab.com

Lizentzia horri esker, berrerabiltzaileek materiala banatu, nahastu, egokitu eta sortu egin dezakete, edozein bitarteko edo formatutan, merkataritzakoak ez diren xedeetarako soilik eta sortzaileari kreditua ematen bazaio. Materiala nahasten, egokitzen edo sortzen baduzu, aldatutako materiala baldintza berdinetan lizentziatu behar duzu..

.- ALDEZ ALDEKO GAIA

Lege-aurreproiektua eta harekin batera doan dokumentazioa gaztelaniaz bakarrik bidali dizkigute, eta horrek eragotzi egiten dio Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari bere lanak guztiz elebidun eta bi hizkuntza ofizialetan behar bezalako bermeekin egitea.

I.- AURREKARIAK

2026ko azaroaren 8an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazkia jaso genuen. Horren bitartez, "*Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko Legearen aurreproiektuari*" buruzko txostena eskatu zuen, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontsultagai dugun arauaren xedea da, 1. artikuluan azaltzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-, elikadura- eta gastronomia-politika garatzeko euskal administrazio publikoek izan behar dituzten printzipio inspiratzaileak eta jarduteko oinarriak ezartzea.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-elikagaien sektorea tresna berriz hornitu nahi du, haren funtsezko izaera estrategikoa indartu eta sendotzeko, eta, horrela, hornidura eta elikagai-irisgarritasuna, haren jasangarritasun ekonomikoa eta euskal herritarren elikadura-segurtasuna bermatzeko, batez ere krisi-egoeretan. Horren guztiaren helburua da nekazaritzako elikagaien eta basoen sistemaren jasangarritasun-erronkei laguntzea, haien ustiategien eta enpresen errentagarritasuna, bideragarritasuna eta etorkizuna bermatzeko.

Berehala bidali zitzaien dokumentuaren kopia Batzordeko Oso Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak emateko eta horiek guztiak lan-batzordean landu daitezen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera.

2026ko azaroaren 4an Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektua egin zen, Batzordearen Osoko Bilkuran helarazteko, eta han aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

"*Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko Legearen Aurreproiektua*" dokumentuak hauek ditu: zioen azalpena, atariko tituluan dauden 116 artikulu eta kapituluetan banatutako sei titulu, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen.

Zioen azalpena

Zioen azalpenean azaltzen denez, **Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legea onartu zenetik**, 17 urte baino gehiago igaro dira, eta **eraldaketa sakonak gertatu dira** EAEko nekazaritzako elikagaien sektorean. Aldaketa horiek eragina dute bai hura arautzen duen arau-esparruan (batez ere, Nekazaritza Politika Erkidean (NPE)), bai haren produkzio-, gizarte-, teknologia- eta lurralde-egituran. Hori dela eta, **beharrezkoa da arau hori oso-osorik berrikustea**.

Nekazaritza- eta elikagaigintza-politika berriaren erronkak sakonak dira, bai EBn, bai Euskadin.

Testuinguru geopolitikoaren ziurgabetasunak, gero eta ondorio latzagoak dituen krisialdi klimatikoak, eta nekazaritzako ustiategien galera progresiboak, irismen luzeko ikuspegia eskatzen dute.

Beharrezkoa da herritar guztiek elikadura osasuntsu eta kalitatezkoa izateko duten eskubidea bermatuko duen eredu bat indartzea, nekazari eta abeltzainei **diru-sarrera eta bizi-maila duinak emango dizkiena**, bidezko prezioen bidez balio-katean.

Euskadiko nekazaritza- eta elikagaigintza-politika **ekoizpen-gaitasun propioa sendotzera** bideratu behar da, kanpo-mendekotasuna eta kanpoko krisien aurrean EAEko elikadura-sistemak duen zaurgarritasuna murrizteko.

Hura, gainera, **berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko** ezinbesteko eta premiazko trantsizio baten barruan sartzen da, eta horrek paraleloan aurrera egiteko eskatzen du nekazaritza-lurzoruarekin bateragarriak diren energia berriztagarrien garapenean, lege honetan ezarritakoaren arabera.

Barne-mailan, euskal nekazaritza-sektoreak garrantzi handiko egitura-erronkei egin behar die aurre: ustiategien titularren zahartze progresiboa, belaunaldien arteko erreleborik eza eta baserritarren kopuruaren etengabeko murrizketa.

Gainera, NPEk **Europako funtsekiko** duen **mendekotasun** handiak sektorearen etorkizunari buruzko zalantza gero eta handiagoa sortzen du, batez ere Europatik datozen finantza-baliabideak murrizteko aukeraren aurrean. Egoera horrek euskal erakundeak behartzen ditu nekazaritza- eta elikagaigintza-politiken jarraipena nola bermatu hausnartzera, baita euskal nekazaritza-elikagaien sistemaren autonomia estrategikoa indartuko duten mekanismo propioak diseinatzera ere.

Prozesu guztia **bidezko trantsizio** baten irizpidearen arabera gauzatu beharko da.

Erronka horien aurrean, gure nekazaritzako elikagaien sektoreak behar duen **paradigma-aldaketan** eragin nahi du legeak. Horretarako, **bi jarduketa-bektore** nabarmentzen dira.

Lehenik eta behin, **errentagarritasunaren bektorea**. EAEko nekazaritza-sektoreak errentagarritasunean hazi behar du. Hura lortzeko, **nekazaritza-jardueraren enpresa-ikuspegitik** abiatzen da legea, lehiakortasun eta balio erantsi hobea bilatzeko.

Bektore horren barruan, funtsezkoa da nekazaritza-lurra babestea, azpisektore bakoitzaren bilakaera aldian behin aztertzea, edo ekoizpena errentagarritasun handiagoko laboreetara eta nitxo berrietara dibertsifikatzea, batez ere ureztatze-lanen garapenari lotuta dauden nitxoetara.

Bigarrenik, legeak **elikaduraren bektorea** du oinarri, eta hura eskubidetzat eta euskal herritarrek duten botere publikoen bermetzat jotzen du, **elikagai-hornidura segurua, osasungarria eta kalitatezkoa** ahalbidetzeko, baina baita nekazaritzako elikagaien sektorearen katean **erreferente gisa ere**, gure gizartearen sektore estrategiko gisa duen posizionamendua indartzeko.

Segurtasunaren arloan, legeak gure ekoizpenen **elikadura-segurtasuna** indartu nahi du, katea kontrolatzeko programak indartuta, eta ahalik eta elikagai-ekoizpen handiena bultzatu, Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien autohornikuntza-maila handitzeko.

Mendietan egin beharreko baso-jarduerari dagokionez, eta mendien eta baso-jardueraren arloko eskumen-eremua argi uzteko, xedapen gehigarri bat sartu da, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluaren 29. apartatua aldatzen duena. Xedapen gehigarri

horren arabera, udalerrien berezko eskumenen adierazpena mugatu behar da, eta, dagozkien eskumenen artean, mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea kanpoan utzi behar dira.

Elikagai osasungarri eta kalitatezkoak ekoizteari dagokionez, legeak bere lurraldean ekoitzitako nekazaritza- eta elikagai-produktuen kalitatea hobetzeko programak bultzatzen ditu, merkatuak ezaugarri fisiko-kimiko, organoleptiko eta nutrizionalengatik ezagut ditzan; jatorri-deitura eta kalitate bereizia duten produktuen lorpena areagotzeko; euskal elikadura-ondarea indartzeko eta, azkenik, elikadura sustatzeko euskal gastronomia nazioartean kokatu eta proiektatzeko elementu estrategiko gisa. Zentzu horretan, legeak elikagaien industriaren eta gastronomiaren eginkizuna bultzatzearen alde egiten du, gure nekazaritzako elikagaien ekoizpenetarako katearen ardatz eragile gisa.

Hauek dira Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorean eragina duten beste faktore garrantzitsu batzuk: **klima-aldaketak** landareen, animalien eta basoen osasunean duen inpaktua; energia berriztagarrien garapenak **nekazaritza-lurzoruan duen eragin berria**; **ekonomia zirkularrak** lehenengo sektorean duen eginkizuna eta elikagai-**xahuketaren aurkako borroka**. Testuinguru horretan, **euskal administrazio publikoek egokitu egin dituzte beren jarduketak** nekazaritzako elikagaien sektoreari eragin dioten baldintzatzaileetara (aldekoak eta kontrakoak), bai araudiaren ikuspegitik, bai aurrekontuari dagokionez. Hala ere, **gaur egungo egoerak lege-esparru berri bat eskatzen du**, hurrengo urteetako ekintza politikoa bideratzeko, sektorearen erresilientzia indartzeko eta etorkizuneko jasangarritasuna bermatzeko, egitura-, gizarte-, ekonomia- eta lurralde-ikuspegi eguneratua oinarri hartuta.

Lege hau, beraz, **tresna estrategikoa da egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko; Euskadiko nekazaritzako elikagaien eredu lehiakorra, bidezkoa, jasangarria eta errealitate berrietara egokitua sendotzeko; emakume nekazarien sarbidea eta parte-hartzea finkatzeko, eta elikadura-sistemak Euskadiren ongizatearen, osasunaren, ekonomiaren eta nortasunaren funtsezko oinarri izaten jarraituko duela bermatzeko**.

Xedapen zatia

Atariko tituluak (1. artikulutik 7.era) legearen **xedapen orokorrak** jasotzen ditu, honako hauei buruzkoak: jarduketa-printzipioak, xedea, eremu objektiboa eta lurralde-eremua, helburuak eta definizioak. Titulu horretan, legearen helburuetako bat da (gero legearen artikuluetan garatzen da) emakumeen benetako titulartasun eraginkorra lortzeko beharrezkoa den bultzada, helburu hori lortzen laguntzen duten esparru guztietan jardunda eta nekazaritza-jardueraren enpresa-lidergoa beren gain hartuko duten profesional kualifikatuak sar daitezen sustatuta.

I. tituluak, nekazaritza-sistema eta -ustiategiei buruzkoak (8. artikulutik 23.era), honako hauek jasotzen ditu bere hiru kapituluetan: familia- eta gizarte-nekazaritzaren ereduaren defentsa, euskal nekazaritza-jardueraren erreferentzia nagusi gisa; nekazaritza-ustiategien antolamendua, nekazaritza-ustiategiak garatu, finkatu eta haiei eusteko, eta haien bideragarritasuna eta jasangarritasun ekonomikoa bermatuko duten kudeaketa-ereduak; eta nekazaritza-lurraren defentsa eta hura mantentzen dela bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak.

II. tituluak (24. artikulutik 49.era) **nekazaritzak ingurumen-jasangarritasunean duen zeregina definitzen du**, eta nekazaritza-kudeaketa arautzen du ingurumena babestearekin, natura-ingurunea babestearekin eta biodibertsitatea kontserbatzearekin bateragarria den moduan.

Titulu horretan, halaber, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ekoizpen jasangarriari heltzen zaio,

eta, besteak beste, honako helburu hauek lortzeko neurriak hartzen dira: ekoizpen ekologikoa eta nekazaritza birsortzailea garatzea; larreak sustatzea eta mendietako larreak mantentzea; eta Euskadiko basoen ingurumen-balioa babestea.

Halaber, landareen eta animalien osasunaren ikuspegia lantzen da “One Health” ikuspegitik abiatuta, eta nabarmentzen dira zaintza- eta prebentzio-tresnak, klima-aldaketara egokitzea eta izurri eta gaixotasunen aurrean jardutea.

III. tituluak, **elikagaien balio-katea eta basoetako zuraren balio-katea antolatzeari buruzkoak** (50. artikulutik 77.era), elikagaien balio-kateen kudeaketa arautzen du, eta nekazaritza-jarduera enpresa-jarduera gisa indartzeko neurriak ezartzen ditu, hala nola ekoizpen-sektoreak balio-katean duen negoziazio-boterea sendotzea, ekoizpenen kalitatea bultzatzea, logistikaren arloko ekintzak garatzea, nekazaritzako elikagaien merkatuetarako sarbidea sustatzea, edo azpisektoreen errentagarritasun ekonomikoa hobetzea.

Horrez gain, baso-eraldaketa eta nekazaritzako elikagaien produkzioa jorratzen ditu balio-katean, jasangarritasuna bultzatzeko, lehiakortasuna indartzeko eta tokiko lehengaiaren hornidura ziurtatzeko, baita elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoen ahalik eta ekoizpen handiena sustatzeko ere.

Titulu horretan, gastronomiak eginkizun estrategikoa du euskal elikakatean, eta haren garapena eta sustapena sustatzeko, suspertzeko eta bultzatzeko neurriak hartzen ditu, baita osasunera, jasangarritasunera eta gertutasunera bideratutako sukaldaritza kolektiboaren alde egiteko neurriak ere.

IV. tituluak (78. artikulutik 92.era) **gobernantza instituzionala eta sektoreari laguntzeko politikak** definitzen ditu, ikerketara, garapen teknologikora, prestakuntzara eta aholkularitzara bideratutakoak. Titulu horretan bertan, lan-arriskuen prebentzioari, sasoikako lanari edo nekazaritza-aseguruei lotutako lan-eremua eta prebentzio-eremua bermatzeko neurriak ere jasotzen dira.

Azkenik, titulu horretan, nekazaritzako, elikagaigintzako eta gastronomiako asoziazionismoa bultzatzeko ekintzak biltzen dira.

Administrazioak sektorean **esku hartzeari** buruzko **V. tituluak** (93. artikulutik 97.era) bultzatu beharreko sustapen-neurri eta politika aktibo nagusiak arautzen ditu, eta bat datoz legean bertan zehaztutako helburu orokorrekin. Halaber, laguntzak kudeatzeko eskumena jasotzen du, eta baimenak eta lizentziak nola eman zehazten du, baita ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak nola bete ere.

Azkenik, **VI. tituluak** (98. artikulutik 116.era) jarduera esku-hartzaile edo sustatzaile orok ezinbestean izan behar duen **arau-hausteen eta zehapenen araubidea** jasotzen du, jarduera horien helburua betetzen dela bermatzeko.

Xedapen gehigarriek, iragankorrak, indargabetzaileak eta azken xedapenek legea behar bezala betetzeko beharrezkoak diren aurreikuspen batzuk jasotzen dituzte.

Lehenengo xedapen gehigarria hizkuntza-eskubideei buruzkoa da, eta bigarrena, berriz, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapeneko Politikako Batzordeak hartutako erabakiei buruzkoa.

Xedapen iragankorraren arabera, erregelamendua garatzen ez den bitartean, indarrean dauden xedapenak aplikatu ahal izango dira.

Xedapen indargabetzaile bakarrak indargabetuta geratzen diren xedapenak jasotzen ditu.

Azken xedapenetatik lehena erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa da, bigarrena eta hirugarrena Toki Erakundeei buruzko Legearen eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Legearen aldaketei buruzkoak, hurrenez hurren; eta azkena, legea indarrean jartzeari buruzkoa.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gure gogoetarako aurkeztu zaigu "*Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko Legearen aurreproiektua*". Aurreproiektu horrek aldaketak sartzen ditu indargabetzen duen eta haren oinordeko den legearekiko (abenduaren 23ko 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa), denboran zehar izandako aldaketetara ((bai euskal nekazaritza- eta elikagaigintza-sektorean izandakoetara, bai sektore horri aplikatu beharreko araudian izandakoetara) egokitzeko eta moldatzeko helburuarekin.

Kontseilu honek bat egiten du indarrean dagoen legea eguneratzeko beharrarekin; eta **positibotzat eta egokitzat** jotzen du aurrekoa indargabetuko duen **araudi berri bat egitea**, egungo errealitatera eta etorkizunak planteatzen dituen erronketara egokituz.

Hala ere, gure ustez, antzematen da indarrean dagoen legea aplikatzeari buruzko aurretiazko hausnarketa bateraturik ez dela egin, eta, ondorioz, aurreproiektuak zenbait **gabezia edota hobetu daitezkeen alderdi** ditu. Horiek jarraian zehaztuko ditugu.

- Zioen azalpenari dagokionez, adierazi nahi dugu ez direla aipatzen lehen sektoreak oro har (eta nekazaritzako elikagaien sektoreak bereziki) Euskadiko nekazaritza- eta landa-eremuetako despopulazioari aurre egiteko betetzen duten eginkizuna eta ematen duten balioa. Uste dugu, gainera, ez dela behar adina nabarmentzen elikagaien sektoreak Euskadiko osasun-sisteman duen garrantzia.

- Kontsultatu zaigun testuak gehiegizko garrantzia ematen dio elikagaien eraldaketaren eta merkaturatzearen sektoreari, eta, ondorioz, ahulezia-egoeran uzten du euskal nekazari eta abeltzainek garatzen duten nekazaritza-ekoizpena.

- Aurreproiektuak *Euskadi 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana*rekin *(Euskadi 2030 ZTBP*) bat-etortze material oso handia badu ere, ez zaio berariazko aipamenik egiten plan horri euskal I+G+b politikaren esparru estrategiko gisa. Gure ustez, egokia izan daiteke plan horri berariazko aipamen hori egitea, dela justifikazio-memorian, dela legearen zioen azalpenean bertan.

- Legeak finantza-sisteman duen eragina zuzena, egiturazkoa eta dimentsio anitzekoa denez (nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaien kreditu-zorroa, nekazaritza-aseguruak eta estaldura-produktuak, 60. artikuluko finantza-tresnak, kontratazio publiko jasangarria —93. artikulua, sustapen-neurriak— eta ESG irizpideak[1]), euskal finantza-erakundeak nekazaritza-sistemaren gobernantza-ekosisteman txertatzea iradokitzen dugu (bereziki, Nekazaritza Aseguruen Mahaian —88. artikulua— eta finantza-tresnen diseinuan —60. artikulua—). Horrela, finantza-sektorearen gaitasun analitikoa eta datu-gaitasuna baliatuko lirateke, legeak eraiki nahi duen sektore-adimenaren zerbitzura jartzeko.

- Aurreproiektuaren 22.1 artikuluan honako hau ezartzen da: "*Euskal Autonomia Erkidegoko*

[1] *ESG (Environmental, Social and Governance) irizpideak ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpide gisa itzultzen dira.*

Administrazio Orokorrak (…) Euskal Autonomia Erkidegorako landa-errentamenduen lege berezi bat egitea bultzatuko du".

Gogorarazten dugu Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen (EZZL) 13. artikuluak honako hau xedatzen duela: "*Landa-errentamenduaren kontratuak, euskal tradizioan, ezaugarri bereziak ditu, errentamenduaren egonkortasunari, errentariaren eskubidea eskualdatzeari eta bestelako alorrei dagokienez; horiek guztiek justifikatzen dute, lege honen xedapenetatik kanpo ere, errentamendu hori lege bereziaren bitartez arautzea*".

Landa-errentamenduak lege berezi baten bidez arautzearen justifikazioa lege batean jasota geratu zenetik 10 urte igaro ondoren, gure ustez, ez da nahikoa aurreproiektuak "*egitea bultzatuko du*" besterik ez jasotzea; aitzitik, lege berezi hori egiteko denbora-konpromiso bat ezarri beharko luke.

Lege hori onartzea berariazko araubide propio bat ezartzeko bidea da (Galiziak, Valentziak eta Kataluniak dagoeneko egin duten bezala; horiek nork bere lurraldearen behar propioetara egokitutako legeria propioa dute), euskal nekazaritza-sektorearen berezitasunetara egokituko dena, eta gaur egun sektorean planteatzen diren erronkei irtenbidea emateko nekazaritza-politikako tresna gisa balio dezakeena.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

Gogoeta orokorrekin bat etorriz, beharrezkotzat jotzen dugu berariaz aipatzea lehen sektoreak oro har (eta nekazaritzako elikagaien sektoreak bereziki) Euskadiko nekazaritza- eta landa-eremuetako despopulazioari aurre egiteko betetzen duten eginkizuna eta ematen duten balioa. Era berean, egokitzat jotzen dugu elikagaien sektoreak Euskadiko osasun-sisteman duen garrantzia nabarmentzea.

2. artikulua. Printzipio gidariak

a) atalak honako hau xedatzen du: "(…) *Printzipio honek euskal administrazio publikoen politika publikoak honako hauetarantz bideratuko ditu: elikadura-segurtasunaren babesa, trazabilitatea, kalitate bereizia, kontsumitzaileentzako egiazko informazioa eta tokiko eta hurbileko elikadura-sistemen sustapena, gizarte-kohesiorako, lurralde-orekarako eta euskal elikadura-sisteman gizarteak duen konfiantzarako funtsezko elementu gisa*".

Gure ustez, kontsumitzaileei helarazi behar zaien **informazioa**k **egiazkoa ez ezik, nahikoa ere** izan behar du.

Horregatik, letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** proposatzen dugu:

"(…) Printzipio honek euskal administrazio publikoen politika publikoak honako hauetarantz bideratuko ditu: elikadura-segurtasunaren babesa, trazabilitatea, kalitate bereizia, kontsumitzaileentzako egiazko informazioa **eta nahikoa** eta tokiko eta hurbileko elikadura-sistemen sustapena, gizarte-kohesiorako, lurralde-orekarako eta euskal elikadura-sisteman gizarteak duen konfiantzarako funtsezko elementu gisa".

5. eta 6. artikuluak. Xedeak. Helburuak

Nekazaritzako elikagaien politiken xedeen eta helburuen artean, honako hauek **sartzea** iradokitzen dugu, **berariazko manuetan**:

- Elikadura-segurtasuna eta -subiranotasuna.
- Ekoizleei lan administratiboaren karga eta burokrazia murriztea; izan ere, gaur egun beren gain hartzen duten dokumentazioa betetzeko maila gehiegizkoa da, eta, zenbaitetan, datu eta informazio berberak aurkeztu behar izaten dituzte prozesu eta organo desberdinetan.

Era berean, **5. artikuluko b), g) eta l) letretan**, letra lodiz adierazitako honako hauek **gehitzea** proposatzen ditugu:

b) Nekazariek bidezko errentak jasoko dituztela bermatzea, beren lana eta ekoizpen-kostuak behar bezala ordaintzeko modukoak izango direnak, eta euskal gizarteko beste sektore ekonomiko batzuetakoekin parekagarriak izango direnak. **Nekazaritzako elikagaien balio-katearen katebegietan espekulazio-jardunbideak saihestea, lehen sektorearen errentagarritasuna galtzea eta nekazariak pobretzea dakartelako.**

g) Elikagaien ekoizpena, errentagarritasuna eta merkaturatzea sustatzea, horrela kate osoaren errentagarritasuna eta sortutako balioaren banaketan ekitatea bermatzeko, eta ustiategien eta enpresen etorkizuna ahalbidetzeko elikadura-autohornikuntzarako eta gure gastronomia indartzeko faktore gisa. **Elikagaien balio-kateko bitarteko katebegietan espekulazio-jardunbideak saihestea.**

l) Euskal nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren babesa hobetzea, hirugarren herrialdeetatik datozen inportazioen eta nazioarteko merkatuen gorabeheren aurrean, **inportatutako nekazaritzako elikagaiek ekoizpen jasangarrirako eta elikagaien segurtasunerako betekizun berberak betetzen dituztela zainduz.**

7. artikulua. Definizioak

- **b) letra**n, **nekazaritza-jarduera** honela definitzen da: "*nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak lortzeko beharrezkoak diren lanen multzoa, horien eraldaketa, ontziratzea eta merkaturatzea barne, betiere azken jarduera horiek ustiategiaren barruan egiten badira. Ustiategiaren mantentze-lanetarako beharrezkoak diren lanak ere sartzen dira*".

  Beharrezkotzat jotzen dugu zezenketako festa-jardueretarako diren animalien hazkuntza nekazaritza-jardueratzat **hartzea**.

  Mota horretako ustiategietan, azienda horren ezaugarriak (berezko basatasuna eta jai-jardueretarako duen balioa) eta haragitarako inolako aprobetxamendu-aukerarik eza kontuan hartuta, lan hori nekazaritza-jardueratzat hartzeak babes handia emango lioke azpisektore txiki horri. Horrenbestez, hazi eta belaunaldi-erreleboa sustatzeko beste nitxo bat bihur liteke. Gaur egun, zezenketako jai-jarduerengatik jasotako diru-sarrerak ez dira nekazaritzako diru-sarreratzat hartzen; beraz, ondorioz, abeltzainak jarduera mistoko abeltzaintzat hartzen dira, haragitik lortzen dituzten diru-sarrerak jai-jardueretatik lortutakoak baino nabarmen txikiagoak baitira.

- **o) letra**n, **elikagai-xahuketa** honela definitzen da: "*hainbat arrazoirengatik elikagai-katetik baztertutako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak, gizakien kontsumorako guztiz jangarriak eta egokiak izaten jarraitzen dutenak, eta, beste erabilera alternatibo posiblerik ezean,*

hondakin gisa baztertuta amaitzen dutenak".

Gure ustez, definizioak, gizakien kontsumorako diren elikagaiez gain, animalien elikadurarako jangarriak eta egokiak izaten jarraitzen duten produktuak **jaso** beharko lituzke.

- **dd) letra**n, **nekazaritzako elikagaien sektorea** honela definitzen da: "*nekazaritza-, abeltzaintza-, arrantza-, akuikultura-, ehiza- eta mikologia-ekoizpen primarioa, ekoizpen horren eraldaketa, ontziratzea, banaketa eta merkaturatzea barne hartzen dituena, bai eta baso-jatorriko elikagai-aprobetxamenduak ere*".

  Gure ustez, aipatutako jarduerez gain, erlezaintza ere **sartu** beharko litzateke.

10. artikulua. Familia-nekazaritzari eta gizarte-oinarriko nekazaritzari laguntzeko lehentasunezko jarduketak

- Ustiategien titularren bizi-kalitatea hobetzeko laguntza-zerbitzuen arloan, **2.a) puntua**n, lehentasunezko jarduketen artean sartzen da "*ordezkapen-zerbitzuak ezartzea sustatzea, ustiategien titularrei (bereziki abeltzaintza-ustiategien titularrei) oporraldiak edo atsedenaldiak hartzeko aukera emateko, bai eta amatasun- edo aitatasun-bajak bete ahal izateko ere*".

  Gure ustez, amatasun- eta aitatasun-bajez gain, gaixotasunagatiko eta istripuagatiko bajak ere **sartu** beharko lirateke.

- Familia-ustiategietako prozesuen digitalizazioan egindako inbertsioetan laguntzeko zerbitzuen arloan, **4.b) puntua**n, jarduketen artean honako hau sartzen da: "*familia-ustiategietako eta gizarte-oinarriko ustiategietako nekazaritza-jarduerari aplikatu beharreko digitalizazioan eta teknologia berrietan inbertsioak egiteko laguntza-ildoak ezartzea (besteak beste, honako hauetan: landa-koaderno digitalak, azienda lokalizatzeko eta kontrolatzeko sistemak, doitasunezko nekazaritzako moduluak, negutegi adimendunak, biltzeko robotika, eta drone bidezko osasun-tratamenduen aplikazioak)*".

  Kontuan hartuta mota horretako ustiategiak direla, batetik, dauden merkaturatze-kateen aurrean **ahulenak** eta, bestetik, landa-ingurunean biztanleria gehien finkatzen dutenak, **lehentasunezko tratamendu bat jasotzea proposatzen dugu**, indarrean dagoen araudiak lehentasunezko ustiategietarako, familia-ustiategietarako eta gizarte-oinarriko ustiategietarako baimentzen duen gehienekora arteko dirulaguntzak ematea ekarriko duena.

22. artikulua. Landa-errentamenduak

Gogoeta orokorretan azaldutakoaren ildotik, 1. puntua **berriro idaztea** iradokitzen dugu, honela gera dadin:

Nekazaritza-arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak Euskal Autonomia Erkidegoko errentamendu-kontratuen araudia egokituko du Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Araudi-garapen horretan, euskal nekazaritza-sektorean figura horrek berez dituen berezitasunak jasoko dira, bereziki ahozko kontratuei dagozkienak, bai eta sektorean dauden beste kontratu-figura batzuk ere.

34. artikulua. Larreen sustapena eta mendiko larreen mantentzea

4. puntuak honako hau ezartzen du: "*euskal administrazio publikoek abeltzaintza estentsiboaren segurtasuna sustatzeko programak bultzatuko dituzte*".

Abeltzaintza estentsiboa etengabeko erasoak jasaten ari den egungo egoera kritikoaren aurrean, eta eraso horiek ustiategi estentsiboen mantentze-lanerako dakarten arriskua ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu artikulu honetan fauna basatia berariaz aipatzea.

Jakin badakigu manuak, egun idatzita dagoen bezala, ez duela baztertzen fauna basatiaren aurkako babesa; hala ere, berriro diogu garrantzitsua iruditzen zaigula, arazoaren garrantzia kontuan hartuta, berariazko aipamen bat jasotzea.

Ondorioz, letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** proposatzen dugu:

Euskal administrazio publikoek abeltzaintza estentsiboaren segurtasuna sustatzeko programak bultzatuko dituzte, **eta programa horien artean sartuko da azienda fauna basatiaren erasoen aurrean babestea**.

51. artikulua. Ekoizpen-sektoreak balio-katean duen negoziazio-ahalmena indartzeko jarduketak eta tresnak

Elikagai-katearen funtzionamendua eta prezioen eraketa hobetzeko jarduketak arautzen dituen **c) letra**n, honako hauek **gehitzea** proposatzen ditugu:

5. **Elikagai-kate osoa (ekoizpenetik merkaturatzeraino) hartuko duten kostuei buruzko txostenak egin eta argitaratzea (lege berriaren 84. artikuluan jasotakoarekin bat etorriz).**
6. **Erreferentziazko prezioen erabilera bultzatzea nekazaritzako elikagaien kontratuetan, bereziki kalitate-marken barruan gauzatzen diren merkataritza-transakzioetan.**
7. **Nekazaritzako elikagaien kontratuak nahitaez erabiltzeari buruzko kontrola indartzea.**
8. **EAEko ekoizpen-azpisektore nagusietan lanbide arteko erakundeen sorrera bultzatzea.**

57. artikulua. Nekazaritzako elikagaien merkatuetan sartzea eta horietan kokatzea

2.a) atalean, hurbileko merkatuen arloko lehentasunezko jarduketak arautzen dira; **eta 2.b) atal**ean, HORECA kanaleko merkatuen arloko lehentasunezkoak. Besteak beste, honako hau ezartzen da:

- 2.a) ataleko 4. puntua: "*lehentasunez sustatuko da tokiko produktuak, kalitate bereizgarria dutenak eta ekoizpen ekologikokoak hornitzea titulartasun publikoko jantoki kolektiboei, euskal gastronomiari kulturalki lotutako elikadura-eredu osasungarriak eta jasangarriak bultzatuz*".

- 2.b) atala: "*HORECA kanaleko merkatuen arloan, nekazaritzako elikagaien ekoizpenen sustapen-ekintzak garatuko dira, ostalaritzaren arloan eskumena duen sailarekin koordinatuta*".

Gure ustez, **beharrezkoa da urrats bat harago egitea, "lehentasunez sustatuko da" esatetik "lehentasunezkoa izango da" esatera igarota**. Horrela, jantoki kolektiboek eta establezimenduek bermatu egingo dute beren eskaintza gastronomikoan euskal jatorriko nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektoreetako produktu freskoen gutxieneko kuotak egotea, Euskadiko turismo-sektorearen eta lehen sektorearen arteko loturak estutzeko.

Horrela, zioen azalpenean gastronomiari ekoizpen-sektorearentzat katearen eragile nagusi gisa

aitortzen zaion izaerarekin bat etorriz, beharrezkotzat jotzen dugu euskal administrazioak Balear Uharteetako gobernuaren eredua jarraitzea. Gobernu horrek 3/2022 Legea onartu zuen, ekainaren 15ekoa, Balear Uharteetako turismoaren jasangarritasunerako eta zirkulartasunerako premiazko neurriei buruzkoa; eta, lege horretan, hurbileko produktuen nahitaezko gutxieneko ehunekoak ezartzen dira establezimenduaren kategoriaren arabera.

60. artikulua. Sektoreari laguntzeko finantza-tresnak

Gogoeta orokorretan azaldutakoa berretsiz, proposatzen da **manua osatzea** finantza-tresnak diseinatzeko eta bideratzeko euskal finantza-erakundeekin koordinatzeko mekanismo zehatz batekin, aurreproiektuak berak aldarrikatzen duen lankidetza publiko-pribatuko politikarekin bat etorriz.

61. artikulua. Nekazaritzako elikagaien industriaren garapena eta modernizazioa

1. puntuak xedatzen du EAEko Administrazio Orokorrak sustapen ekonomikoko berariazko programak ezarriko dituela hainbat arlotan. j) letran honako hau xedatzen da: "*Hornidura-erresilientzia: lehengai-hornidura egonkorra eta segurua bermatzea, funtsezko hornitzaileekin akordioak eginez, jatorriak dibertsifikatuz eta hornidura-kateko arriskuen kudeaketa proaktiboa eginez*".

Gure ustez, hornidurak lehengai jasangarriena izan behar du, eta ez lehengaiena besterik gabe; izan ere, bestela, euskal ekoizpena desabantaila-egoeran jartzen da. Era berean, jatorriak dibertsifikatzea onuragarria izan badaiteke ere, tokiko ekoizpenari eman beharko litzaioke lehentasuna.

Ondorioz, letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** proposatzen da:

j) Hornidura-erresilientzia: lehengai **jasangarrien** hornidura egonkorra eta segurua bermatzea, funtsezko hornitzaileekin akordioak eginez, jatorriak dibertsifikatuz eta hornidura-kateko arriskuen kudeaketa proaktiboa eginez.

64. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Elikagaien Establezimenduen Erregistroa

2. puntuan, "nazio-eremua" erabili beharrean, "estatu-eremua" erabili beharko litzateke.

69. artikulua. Nekazaritzako elikagaien arloko krisien kudeaketa

Artikulu honek honako hau xedatzen du: "*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta lurralde historikoetako foru-administrazioek nekazaritzako elikagaien arloko alertak eta krisi-egoerak kudeatzeko beharrezkoak diren protokoloak prestatuko dituzte (...)*". Halaber, 2. puntuan, protokolo horien helburuak ezartzen ditu.

2. puntu horretan honako helburu hau **gehitzea** proposatzen da:

e) Estatuko, Europako eta nazioarteko elikagai-eskasiako egoera eta inguruabarretan, janari-eskasia saihesteko eta elikagaien ekoizpena areagotzeko neurriak aurreikustea.

70. artikulua. Elikagaiei buruzko informazioa eta etiketatzea

- 1. puntuan, letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** proposatzen da:

Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuek, fase guztietan, **jatorriari eta** haien funtsezko ezaugarriei buruzko informazio egiazkoa, objektiboa, osoa eta ulergarria eman beharko diete hartzaileei. Informazio horrek produktuak behar bezala erabiltzeko edo kontsumitzeko jarraibideak jasoko ditu, bai eta haien erabilerak edo kontsumoak ekar ditzakeen arrisku aurreikusgarriei buruzko ohartarazpenak ere, erabiltzaileek hautaketa kontzientea eta arrazionala egin ahal izan dezaten, eta produktuak modu seguruan eta gogobetegarrian erabili ahal izan ditzaten".

Hori proposatzen da, uste dugulako produktuen jatorriari buruzko informazioak ere egiazkoa, objektiboa, osoa eta ulergarria izan beharko lukeela, eta ez soilik haien berezko ezaugarriei buruzkoak.

- **5. puntua**k honako hau xedatzen du: "*Euskal Autonomia Erkidegoan merkaturatzen diren nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen identifikazioan euskararen erabilera sustatuko da*".

Letra lodiz adierazitako **aldaketa** hauek proposatzen dira:

Euskal Autonomia Erkidegoan merkaturatzen diren nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuen identifikazioan euskararen erabilera **indartuko** da, **eta, horretarako, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartuko dira**.

77. artikulua. Sukaldaritza kolektibo jasangarria eta osasungarria

2.b puntuan, letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** proposatzen dugu:

Euskal administrazio publikoek honako hauek barne hartuko dituzten sukaldaritza kolektiboko ereduak bultzatuko dituzte (…)

b. **Euskal** familia-ustiategietako eta gizarte-oinarriko ustiategietako nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak lehentasunez sartzea, kalitatezko arrantza-produktu jasangarriak eta ekologikoak barne, hurbiltasun-, sasoikotasun- eta trazabilitate-irizpideak errespetatzen dituztenak.

Hori proposatzen dugu, gure ustez lehentasunezko produktuen euskal jatorria azpimarratu beharko litzatekeelako.

82. artikulua. Nekazaritzako, elikagaigintzako eta gastronomiako prestakuntza

3. bis) puntu bat gehitzea proposatzen dugu, honako idazketa honekin:

3.bis) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, nekazaritza-, elikagaigintza- eta gastronomia-arloetan eskumena duten sailen eta unibertsitateen bitartez, arrantza-kudeaketaren eta ozeanoen nazioarteko gobernantzaren arloko goi-mailako prestakuntza bultzatu, babestu eta garatuko du.

84. artikulua. Euskadiko Elikakatearen Behatokia eta ezagutza

3. puntuan, letra lodiz adierazitakoa **gehitzea** proposatzen da:

Euskadiko Elikakatearen Behatokiak **hileroko** aldizkako txostenak eta prospekzio-azterlanak egingo ditu, arriskuak eta aukerak aurreikusteko aukera emango dutenak. Horrez gain, datuen kontsulta interaktiboa eta agertokien sorrera erraztuko duten tresna digitalak garatuko ditu.

Gure ustez, hileroko txostenak eginez, behatokia ustiategien zerbitzura egongo den tresna baliagarri bihurtuko da, eta testuinguru-aldaketen arabera erabaki azkarrak hartzea erraztuko duten datu eguneratuak edukitzeko balioko du.

86. artikulua. Sasoiko lana

Honako hau xedatzen da:

"Euskal administrazio publikoek, beste administrazio publiko batzuekin eta gizarte-erakundeekin batera, sasoiko langileei arreta emateko berariazko plan integralak garatuko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari Buruzko Erakunde Arteko Mahaiak xedatzen dituen indarreko jarraibideen arabera (Mahai hori Euskal Autonomia Erkidegoko Sasoiko Lanari Buruzko Erakunde Arteko Mahaia sortu eta arautzen duen apirilaren 29ko 97/2003 Dekretuaren bidez eratu zen). Plan horiek honako printzipio hauetan oinarrituko dira:

a) Lan-baldintzak hobetzea, arreta berezia jarriz jatorrian egindako kontratazioetan, laneko eta Gizarte Segurantzako araudia betetzean, bai eta sasoiko langileen laneko segurtasuna eta osasuna babestean ere.

b) Sasoiko langileen laneko segurtasuna eta osasuna babestuko direla bermatzea, berariazko prebentzio-neurrien, harrera-prozeduren eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioaren eta prestakuntzaren bidez, bai eta, hala dagokionean, osasunaren zaintzaren bidez ere.

c) Langileen eta haien familien ostatu-baldintzak egokitzea eta hobetzea, haien duintasuna, segurtasuna eta higienea bermatuz.

d) Sasoiko langileen ardurapean dauden adingabeei eta adineko pertsonei arreta emateko berariazko programak garatzea.

e) Komunitatean bizikidetza eta kulturen arteko errespetua sustatzen lagunduko duten gizarte-sentsibilizazioko eta komunitate-integrazioko kanpainak bultzatzea.

Artikuluak kulturartekotasuna aipatzen du bizikidetza sustatzen laguntzeko; hori egokia da, baina, gure ustez, ez da nahikoa.

Horregatik, genero-berdintasunarekin, LGTBI kolektiboaren aurkako diskriminaziorik ezarekin eta jazarpen- edo indarkeria-kasuetan prebenitzeko eta horien aurrean jarduteko protokoloekin lotutako **printzipio berri bat sartzea** proposatzen dugu.

89. artikulua. Nekazaritza-sektoreko kalte katastrofikoak

2. puntuak xedatzen duenez, EAEko Administrazio Orokorrak "*sortutako egoerara egokitutako neurri aringarri eta konpontzaileen multzo bat antolatu ahal izango du, ezbeharra jasan duten eremuetan nekazaritza-jardueraren normaltasuna berrezartzen laguntzeko. Era berean, kalte katastrofikoak konpontzeak eragindako gastuen finantzaketa behar den azkartasunez eta malgutasunez bermatuko duten prozedurak ezarriko dira (barne hartuta, hala badagokio, larrialdi-egoerei erantzuteko krisi-egoeretarako finantza-erreserba bat edo berariazko finantza-tresnak gaitzea)*".

Gogoeta orokorretan azaldutakoa berretsiz, "krisi-egoeretarako finantza-erreserbari" dagokionez,

gure ustez, arauak tresna horren izaera juridiko-finantzarioa **zehaztu** behar du behin betiko onartu aurretik, benetako eraginkortasunik gabeko adierazpen programatiko gisa gera ez dadin.

93. artikulua. Sustapenerako neurriak

2. puntuak honako hau xedatzen du: "*euskal administrazio publikoek (…) jasangarritasun-irizpideak, ekonomia zirkularreko irizpideak, karbono-isurien murrizketari buruzko irizpideak, kalitate ziurtatuko irizpideak eta hurbiltasun-irizpideak txertatzea sustatuko dute, nekazaritzako, elikagaigintzako eta basogintzako produktuak eskuratzean, bai eta obrak, hornidurak eta zerbitzuak kontratatzean ere. (…)*".

Gure ustez, **epe progresiboak eta inbertsiorako laguntza-ildoak ezarri** behar dira, sektoreko mikroenpresek eta enpresa txikiek egokitzeko aukera izan dezaten, haien finantza-bideragarritasuna arriskuan jarri gabe.

107. artikulua. Zehapenen mailaketa

1.c) eta 1.e) puntuek honako hau arautzen dute: "*arau-hauste mota bakoitzari esleitutako zehapenen artean ezarri beharreko zehapena zehazteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan*:

c) Eragindako kalteen izaera, bereziki arau-hausteak kontsumitzaileen osasunean edo interes ekonomikoetan, edota nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien eta abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiategien interesetan izan ahal izan duen eragin kaltegarria.

e) Salmenten edo ekoizpenaren bolumena, bai eta enpresa arau-hauslearen garrantzia ere".

Gure ustez, **c) letra**n, arauak hausteak ingurumenean izan dezakeen eragin kaltegarria **gehitu** behar da, kontsumitzaileen osasunari eta kontsumitzaileen zein industrien interesei eragiten dietenez gain.

Bestalde, **e) letra**n, "*bai eta enpresa arau-hauslearen garrantzia ere*" **kentzea** proposatzen dugu, duen subjektibotasuna dela-eta.

Hala, manuak honela geratuko lirateke:

c) Era*gindako kalteen izaera, bereziki arau-hausteak ingurumenean, kontsumitzaileen osasunean edo interes ekonomikoetan, edota nekazaritzako eta elikagaigintzako industrien eta abeltzaintzako edo nekazaritzako ustiategien interesetan izan ahal izan duen eragin kaltegarria.*

*e) Sal*menten edo ekoizpenaren bolumena.

V.- ONDORIOA

Euskadiko EGABren iritziz egokia da "*Euskadiko Nekazaritza, Elikadura eta Gastronomiari buruzko Legearen aurreproiektua*" izapidetzea, kontsulta-organo honek hura aldatzeko egin dituen gogoetak kontuan hartuta.

Bilbon, 2026ko azaroaren 12an

OE Presidentea
Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia
Izaskun Astondoa Sarria